



aranzadiana 137

ARANZADIKO BERRIAK 2016

GIZABURUA TUMULUA (ELGOIBAR-SORALUZE) - I. KANPAINA

Zuzendaritza: Manu Ceberio eta Jesus Tapia

Finantziaioa: DEBEGESA, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi Zientzia Elkarte

Nahiz eta Gizaburua tumulua izendatuta egon, monumentuaren ezaugarriak ezezagunak ziren hasiera batean. Barandiaranek aurkitu zuen 1920an, baina oso deseginda zegoen eta gaur egun arte historiaurreko egitura zela zalantzan jartzen zen.

ESKU-HARTZEA

Indusketa eremuaren gaineko landaretza eta lurra kentzea izan zen gure lehenengo lana, ezin baitziren monumentuaren ezaugarri zehatzak ikusi. Landare-estaldura kendu eta eskuz bahetzen genuen heinean, lur marroia eta deskonposatzen ari zen humusaz osatutako maila bat agertu zen indusketa eremu osoan.

Behin goiko maila kenduta, monumentuaren tumulua osatzen duten harriak garbitzen jarraitu genuen.

Egitura osatzen duten harriak bistan geratu zirenean, ezezaguna den une batean egindako zuloak ikusten ziren. Harriak lortzeko erabilitako leku bat izan dela pentsatzen dugu (inguruko eraikinak egiteko), eta horregatik tumulua oso deseginda dago.

Nahiz eta egitura egoera txarrean egon, harlauz-itxurako harri batzuk ikus zitezkeen, eta bat egituraren erdigunean hain zuzen. Horregatik, toki honetan tumulua osatzen zuten harriak kentzea aukeratu genuen, eta lan hau egiteari esker, hilobi baten aztarnak aurkitu genituen.

Hortik aurrera ganbara ikertzea aukeratu genuen, geruza desberdinak industen eta fase desberdinak aurkitzen. Momentuz, bi fase desberdinak baieztatu ditugu; azkena industu dugu, baina ganbararen hondoan beste harlauz bat azaldu da, erorita dago, eta honen azpian material gehiago azaldu da, beste fase zaharrago bat dagoela erakusten. Ikerketa arkeologikoari esker material desberdin batzuk aurkitu ditugu ganbaran: giza hezurak (horietako



Gizaburuagako trikuharria: azaldutako hilobia. © JESÚS TAPIA

batzuk erreak daude), zeramikak, suharriak eta arkulari besoko bat.

Hilobia osatzen zuten harriek desegindak edo erortzeko zorian daudela ikusi dugu, eta horregatik, ganbararen egoera kontuan hartuta, indusketa lanak gelditu genituen. Ikerketa arkeologikoari jarraitu beharko litzateke, ustezko fase zaharra ikertzeko, egitura osatzen duten harlauzak nola eusten ziren ikusteko, eta finkatuta egon zireneko zuloak edo tokiak bilatzeko, baina horretarako harlauzak konpondu eta finkatu beharko lirateke.

EMAITZAK

Ikertutako egitura trikuharri bat dela baieztatu dugu, eta oso interesgarria da; gutxienez bi fase ikusten dira. Azken fasea ikertu dugu (goian dagoena, Brontze arokoa?), baina bestea, zaharragoa da gure ustez (behean dagoena, Neolitokoa?) eta industu gabe dago oraindik, ganbara egoera txarrean dagoelako. Indusketa arkeologikoari esker ganbara aurkitu dugu eta monumentuaren kronologia ezagutzeko material arkeologiko garrantzitsua azaldu da, baina gure ustez hilobiaren ikerketa jarraitu beharko litzateke.

Kontserbazio-egoeraren aldeetik, hilobia osatzen zuten harriek desegindak edo erortzeko zorian daudela kontuan hartuta, ikerketa arkeologikoari jarraitzeko harlauzak konpondu beharko lirateke. Horregatik, ikerketa jarraitu nahi izango balitz (2. fase baten bidez), harriak finkatu eta zaharberritu beharko lirateke indusketa lanarekin batera.

Beste alde batetik, estazio megalitikoaren egitura gehienak ezaugarriak izan arren, beraien ezaugarriak ez direla ondo ezagutzen erakutsi dugu. Gizaburuagako megalitoa ondo ezagutzeko, zaintzeko eta babesteko, ikerketa arkeologiko sakon bat egin beharko litzateke, eta horregatik proiektua jarraitzeko asmoa daukagu. Gainera aukera on bat da trikuharri baten ganbara berreskuratzeko, inguruko hilobi bakarra izango litzateke, besteak desegindak daudelako.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu kanpaina honetako lanetan parte hartu duten guztioi: Izaro Quevedo, Nerea Alustiza, Iñaki García, Julian Ezenarro, Juan Pedro Iñarra, Javier Sudupe eta Endika Zubizarreta.